

SARBIDE ETA ONARPENA

Sartzeko profila ingeniartzako edo eraikuntzako titulazioetan graduatutako batena da, prozesu eta proiektuen jasagarritasunarekin, eraginkortasun energetikoarekin, baliabideen optimizazioarekin edo materialen birziklapenarekin lotutako alderdietan bere ezagutzak eta trebetasunak sakontzeko interesa duena. Masterrera sartzeko gradurik egokienak hauek dira:

- Ingeniaritza Zibileko Gradua
- Arkitektura Teknikoko Gradua
- Arkitekturaren Oinarrietako Gradua
- Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua
- Ingeniaritza Mekanikoko Gradua
- Ingeniaritza Elektrikoko Gradua
- Zientzia eta teknologia arloko beste gradu edo titulazio batzuk, Batzorde Akademikoaren irizpidearen arabera. Batzorde horrek titulazio horien ikasketa-planaren eta Masterraren edukiekin duten loturaren arabera baloratuko du egokitasun-maila.

Onartzeko irizpideak eta horien haztapena

Irizpidea	Merituen balorazioa	% Balorazioa
Espedientea eta sarbide-tituluaren egokitasuna	Hautagaia masterrera sartzeko erabilitako tituluaren espedientearen batez besteko nota baloratuko da, honako faktore hauekin haztatuta: x 1, egokientzat jotzen diren titulazioetarako x 0,85, egokitasun ertain-altuko titulazioentzat. x 0,5, egokitasun txikiko tituluetarako	80
Berrikuntza edo ikerketako meritua	Masterraren gaiarekin lotutako enpresetako berrikuntza-proiektuetan parte hartzea bai eta meritu zientifikoak ere (kongresuetara edo argitaratutako artikulak) baloratuko dira.	10
Lanbide-esperientzia	Masterraren gaian izandako esperientzia profesionala baloratuko da.	10